MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNA
ADUNA, ANDOAIN, ASTEASU, BILLABONA, LARRAUL, ZIZURKIL

Dr. Huizi kalea, 15-1. ezk. 20140 ANDOAIN. (GIPUZKOA)
Tel.: 300733 Fax: 300731 IFZ.: G20438073

M.LARRAMENDI

## EUSKALERRIA IRRATIAREKIN ELKARTASUNA

Azken hilabete hauetan Iruñako Euskalerria Irratia kinka larriko etorkizun bidean sartu da Nafarroako Gobernuak frekuentziarik eman ez diolarik Iruñerrian dihardúen euskarazko irrati bakarrari. Euskalerria Irratiko arduradun eta langileek maiz eta oparo eman diote ezagutzera herri nafar eta euskaldunari egoeraren nondik norakoa, frekuentziak banatzeko burutu den jardunbidea zer nolakoa izan den, eta zein Nafarroako Gobernuak irratiarekin izandako jokabidea. Manuel Larramendi Kultur Bazkunak izan du horien guztien berri, eta horien arabera ondoko alkartasun adierazpena egitea erabaki du:

a) Manuel Larramendi Kultur Bazkunak alkartasunik zinezkoena adierazi nahi dio Iruñako Euskalerria Irratiari eta bertako langileei, jasaten ari diren egoera erabateko bidegabekeriatzat jotzen duelako eta irizten duelako Nafarroaren aurrerabiderako kalte itzela dela berezkoen duen ondarea, euskara alegia, suspertzen eta biziberritzen Euskalerria Irratia egiten ari den lana galeraztea. Ezin ahantzi, gainera, hutsik hizkuntzaren aldeko lana izatetik urruti, komunikabideen esparruan Euskalerria Irratiaren jardunak berezibiziko garrantzia duela betetzen duen funtzio sozial eta kulturalagatik.

b) Hona non, ordea, topo egiten dugun bizitzeko gorputz ahalmenez gaztelerazkoak baino askoz txikiagoa den hedabide batekin, eta horrek, hizkuntzen arteko oreka eta berdintasunezko egoera batean frekuentzia eskuratzeko eskubidea bere izatetik areago, argi eta garbi eskatzen du herri erakundeen aldetik lehentasunezko laguntza eta erraztasun jokabidea. Hori ere ez dugu ikusten Nafarroako Gobernuaren aldetik.

Horregatik, Beterri-Aiztondoko herri hauetatik elkartasuna adierazteaz gain, Euskalerria Irratikoei adierazi nahi diegu bere esanetara gauzkatela inoiz laguntzarik emateko, egoki deritzotenean, dirubilketaren bat antolatuz edo beste nolabait.

c) Nafarroako Gobernuari eta bere lehendakari den Miguel Sanz jaunari eskatzen diegu har dezatela beste jokabiderik Euskalerria Irratiarekin, ezinbesteko bitarteko baitute Nafarroako herrigintza eta kulturgintzan; eman diezaiotela irratsaioetarako behar hainbat

frekuentzi eta, areago, gauza dezatela egitasmo politiko zehatzik, aurrekontuen bidez diruz hornitua, Euskalerria Irratiak eta, oro har, Nafarroako euskalgintzak bere jardunean bide duin eta eraginkorrik zabal dezan.

Langintza horretan Nafarroako Gobernuak laguntzarik behar izanez gero, prest gauzka Larramendi Bazkunak orain arte izan duen atarramentuaren berri emateko. Bidez batez, gonbitea luzatzen diogu Miguel Sanz lehendakari jaunari Beterri-Aiztondo eskualdera etor dadin, eta bere begi eta senez ezagu dezan autobide berriaz gain zer den Nafarroa eta Gipuzkoa herri gisa hain estu lotzen gaituena, eta zein euskara eta euskaraz bizituriko kulturgintza egitearren aurrera damatzagun ekimenak.

Asteasu, 1998, urriak 16.

**Larramendi Kultur Bazkuneko**
**Zuzendaritza Batzordea**

MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNA
ADUNA, ANDOAIN, ASTEASU, BILLABONA, LARRAUL, ZIZURKIL

Dr. Huizi kalea, 15-1. ezk. 20140 ANDOAIN. (GIPUZKOA)
Tel.: 300733 Fax: 300731 IFZ.: G20438073

**NAFARROAKO GOBERNUA**
**Lehendakaritza**
**Miguel SANZ SESMA jauna**
**Carlos III etorbidea, 2**
**31.002 IRUÑEA**

Jaun agurgarri:

Idatzi honi erantsirik bidaltzen dizut Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko Zuzendaritza Batzordeak aurtengo urriaren 16-ko bilkuran onartu zuen Elkartasun Adierazpenaren aldakia, Iruñeako Euskalerria Irratiari egindakoa, hala euskaraz nola gaztelerara itzulita, horren berri izan eta aztertu ondoren aintzakotzat har dezazun.

Bide batez, une honetaz baliatzen naiz adierazpenean Nafarroako Gobernuari eta haren izenean zuri zerorri luzaturiko gonbitea neronek berresteko, atsegin handia izango baikenuke arazo horren konponbidean aurrera zuk zerorrek gure eskualdera ikustaldia egin ahal izatea.

Horrenbestez, zure esanetara gauzkazu. Begirune osoz agurtzen zaitut.

Andoain, 1998, azaroak 6.

Muy Sr. mío:

Adjuno al presente escrito le remito copia del Manifiesto de Solidaridad con Euskalerria Irratia, aprobado por la Junta Rectora de la Asociación Cultural Manuel de Larramendi en su sesión de 16 de octubre del corriente, copia que remito así en su original en euskera como en su traducción al castellano, al objeto de su toma en consideración.

Asimismo, aprovecho esta ocasión para reiterarle personalmente la invitación expresada en dicho manifiesto tanto al Gobierno de Navarra como a Ud. mismo en su nombre, puesto que sería un placer que, avanzando en la resolución del conflicto, pudiera visitar Ud. nuestra comarca.

Para todo ello, nos tiene a su disposición. Reciba un cordial saludo.

Andoain, 6 de noviembre de 1998.

Lehendakaria,/El Presidente,
Izpea.: Jon Unanue López.

KULTUR BAZKUNA
M.LARRAMENDI

MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNA
ADUNA, ANDOAIN, ASTEASU, BILLABONA, LARRAUL, ZIZURKIL

Dr. Huizi kalea, 15-1. ezk. 20140 ANDOAIN. (GIPUZKOA)
Tel.: 300733 Fax: 300731 IFZ.: G20438073

**EUSKALERRIA IRRATIA**
**Mikel Bujanda jauna**
**Iratxe Monastegia, 45-13.**

**31.011 IRUÑEA**

Agur t'erdi:

Idatzi honi erantsirik bidaltzen dizuet Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko Zuzendaritza Batzordeak aurtengo urriaren 16-ko bilkuran onartu zuen Elkartasun Adierazpenaren aldakia, Iruñeako Euskalerria Irratiari egindakoa.

Bide batez adierazten dizuet, adierazpen horren beste aldaki bat -eta horren gaztelerazko itzulpena- bidali diogula gaurko egunez Miguel Sanz jaunari, adierazpenarekin batera gure eskualdea bisitatzeko gonbitea berretsiz.

Zuei, berriz, laguntzeko prest gauzkazuela berretsi behar dizuet, eta itxaropen hartzen dugu laster eman ahal izango diozuela zuen ahalegin bikainaren aldeko konponbidea sortu zaizuen arazoari.

Bien bitartean adiorik ez, elkarren berri izango dugulakoan.

Andoain, 1998, azaroak 6.

Lehendakaria
Izpea.: Jon Unanue López.

KULTUR BAZKUNA
M.LARRAMENDI

▼ANDOAIN

# La revista de estudios históricos 'Leiçaur 5' se presenta esta tarde en Cultura

## Editada por el Ayuntamiento, cuenta con la colaboración de la Fundación Kutxa

**MARIVI OLANO**/DV. ANDOAIN

La sala principal de la Casa de Cultura Urigain acogerá esta tarde el acto de presentación del volumen número 5 del Leiçaur, la revista de estudios históricos sobre Andoain que edita el Ayuntamiento con la colaboración de la Fundación Kutxa.

Siete son los trabajos de investigación histórica que se incluyen: los resultados sobre el castro de Buruntza de Carlos Olatexea, director de las excavaciones realizadas en esta zona y miembro de la Sociedad de Ciencias Aranzadi, el estudio sobre la incidencia del cólera morbo en Andoain durante el siglo XIX de Koro Muro, un análisis de Aitor Garmendia sobre las incidencias que ocurrieron durante la segunda guerra carlista, el trabajo sobre nuevas fuentes de energía durante el primer tercio del siglo XX, realizado por Carlos Larrinaga, el papel de la escuela de postguerra en el adoctrinamiento totalitario del régimen franquista de Peio Urrutia, y los estudios de las andoaindarras Karmele Otaegi, sobre la transición en Andoain desde la perspectiva de la izquierda, y Marta Trutxuelo, que analiza la trayectoria histórica de la empresa Laborde.

El acto de presentación tendrá lugar a las 7.30 de la tarde. El Ayuntamiento editará 1.000 ejemplares del volumen número 5, que podrán adquirirse a 1.200 pesetas. Como excepción, hoy se venderán en la Casa de Cultura a 1.000 pesetas.

**En defensa de Euskalerria Irratia**

La Asociación Cultural Manuel Larramendi ha hecho público un comunicado de solidaridad con Euskalerria Irratia de Pamplona por la situación que vive este medio de comunicación «como consecuencia de la negativa del Gobierno de Navarra a conceder una frecuencia a la única radio que emite en euskera en la comarca de Pamplona».

La asociación considera que ésta es una situación 'de clara injusticia" que imposibilita el trabajo que Euskalerria Irratia «viene realizando por promover y reactivar el patrimonio más genuino y propio del pueblo navarro, a saber, el euskera».

Larramendi Kultur Bazkuna añade que «nos encontramos ante un medio de comunicación con una audiencia potencial y unos recursos mucho más limitados para hacer frente a su tarea diaria que aquellas radios que emiten en castellano y ello requiere, más alla del derecho que le asistiría en una situación de equilibrio lingüístico e igualdad a la concesión de una frecuencia, una actitud clara y constante por parte de las instituciones públicas de apoyo y ayuda prioritaria».

Por todo ello, además de mostrar su solidaridad, la asociación tiene previsto organizar una campaña para recaudar fondos en apoyo a dicho medio de comunicación.

Al mismo tiempo, solicita al Gobierno de Navarra que adopte una actitud diferente respecto a Euskalerria Irratia, «puesto que se trata de un medio que les resulta imprescindible para el desarrollo y progreso de Navarra y de su cultura», y que elabore un programa específico con una provisión de fondos adecuada para que «la acción en favor del euskera en Navarra cuente con una vía de actuación digna y eficaz».

La Asociación Manuel Larramendi invita al presidente de la Comunidad de Navarra, Miguel Sanz, a visitar la comarca Beterri-Aiztondo para que conozca cuáles son las iniciativas que «desarrollamos para la promoción y normalización del euskera y de su cultura».



La sala de cultura Urigain será el lugar de presentación de la revista./UNANUE

### Proyección de un audiovisual de Javier Garreta sobre la historia montañera local

**DV.** ANDOAIN

Continuando con la serie de proyecciones que organiza el Euskalduna Mendizalea Taldea con motivo de la XXXV Semana Montañera, esta tarde, a partir de las 20.00 horas, se proyectará en el local social el audiovisual titulado *Nere historiaren 40 urteak* de Javier Garreta.

**Campeonato de fútbol sala**

Los partidos correspondientes a la 5ª jornada serán los siguientes: el sábado, en el campo I de La Salle, a las 14.30, Goi-Gaztelutxo (arbitrado por Cáncer Negro); 15.30, Puertas Angel-Xixori (Goi); 16.30, Cáncer negro-Mu (Puertas Angel).

En el campo II, a las 14.30, Kurkutz-Adarra Txiki (Iceberg B); 15.30, Iceberg B-La Paz (Kurkutz); 16.30, Gambara-Rótulos Martín (La Paz).

El domingo, a las 9.00, Peñarol-Bikoitz (Ormendi); 10.00, Arteta-Iruki (Gaztelutxo); 11.00, Sprint Izaguirre-Kabia (Arteta); 12.00, Ormendi-Autoescuela Mendi (Sprint).

**Semana del Anciano**

Los residentes de la Residencia San Juan Bautista participarán esta tarde, a partir de las cinco, en el acto de unción de enfermos que oficiarán los sacerdotes de la localidad. A las seis de la tarde habrá baile amenizado por el acordeonista Mitxel.

**Farmacia de guardia**

Hoy, le corresponde realizar el servicio de guardia a la farmacia Elizondo, que se encuentra situada en Zumea 20. Teléfono: 943-592629.

▼ASTIGARRAGA

# Honek taldeak jasotako diru laguntza dagoeneko Nikaraguarako bidean da

**JOXE ORMAZABAL**/DV. ASTIGARRAGA

'Honek', Herri oinperatuekin nazioarteko elkartasunerako kide astigarratarrak lerro hauen bidez 'Mitch' hurakana dela eta Euskal Herrik erakutsi duen elkartasuna eskertu nahi du. Orain arte bederatzi miloi inguru jaso omen dituzte eta diru kopuru hau Nikaraguaren iparraldeko toki kaltetuetako Babes Zibileko Larrialdiko komiteei bidaltzen ari direla diote.

Herri hauetako alkatetzekin harreman zuzenean daude eta Euskal Herriak erakutsi duen elkartasuna dela eta bere esker ona jaso du 'Honek' taldeak. Eta noski, lerro hauen bitartez astigarratarrei zabaltzen dizuete esker hau.

Egoera oraindik ere larria da eta lurreko komunikazioa jartzeko saiakeran ari dira, laguntza kaltetuengana iritsi dadin. Infekzio gaixotasun agerraldia eta azpeigitura galtzeak ekarri duen gosete egoera gero eta larriagoa bihurtzen ari da. Gauzak horrela izanik dirulaguntza ematen jarraitzea eskatzen dute.

**Arantzazu'ko ama**

Bigarren urtez, Arantzazu'ko Ama ikastolako mendi taldeak irteerak antolatzeari ekin dio, hauek guraso eta seme-alaben artean burutu ditzaten. Hilabetero bat ospatuko da eta datorren igandekoan, konkretuki, Tolosako Uzturre mendira egingo da egun osorako. Irteera goizeko bederatzietan izango da herriko ikastola beretik.

**Fútbol-sala femenino**

Pese a ir mejorando su juego en cada una de las pocas jornadas que lleva compitiendo en categoría juvenil, el equipo representante del Mundarro en fútbol-sala femenino no pudo imponerse en el partido disputado en el polideportivo de Astigarraga, pues cayó por 4 a 2 ante el Plai Aundi de Irún.

▼URNIETA

# Se ha organizado el Primer Campeonato Comarcal de mus relámpago en el frontón

**LANDAZURI**/DV. URNIETA

Por primera vez en la localidad, Kulturnieta organiza su Primer Campeonato de mus relámpago. El lugar escogido ha sido el frontón municipal.

Este campeonato se jugará el día 19 de diciembre de 1998 a partir de las 16 horas. Para ello será imprescindible la participación como mínimo de 100 parejas, siendo la inscripción de 4.000 pesetas por pareja, pudiéndose hacer a través de la cuenta corriente Kutxa nº 104809.4.5. También en el frontón municipal hasta las 15.45 horas del mismo día 19.

El sorteo de las mesas y parejas comenzará a las 16 horas al término de las inscripciones.

Este campeonato se jugará en la modalidad de cuatro reyes.

Los premios serán los siguientes: primera pareja clasificada, 200.000 pesetas, trofeo y txapela. Segunda pareja, 100.000 pesetas y trofeo. Tercera pareja, 50.000 pesetas y trofeo. Cuarta pareja clasificada, 25.000 pesetas y trofeo.

En este campeonato, el dinero que sobre, si aparecen más parejas, se destinará a una ONG o a una institución benéfica.

Todos aquellos que hagan su inscripción en Kutxa deberán dar el nombre de la pareja inscrita.

Se numerarán a las parejas según el orden de ingreso.

El mismo día 19-12-98 se les entregarán unas etiquetas con el número correspondiente a cada pareja.

Durante el desarrollo del campeonato se realizará un sorteo de diversos artículos donados por las firmas patrocinadoras.

Es de esperar que este Primer Campeonato Comarcal de mus relámpago tenga una buena acogida y se disfrute con él. Recordamos que es de carácter comarcal.

**Aula de cine**

El Centro de Artes Escénicas Sarobe de Urnieta, a través de Esperanza Luffiego García, coordinadora del aula de cine, invita a cuantos estén interesados en acudir al estreno de los cortometrajes realizados por los/as alumnos/as del aula de cine del curso 97-98, el día 13 de noviembre de 1998 a partir de las 20 horas.

El programa será el siguiente: Txalaparta. Presentación. Actuación de Josetxo Silguero Gorriti *The solitary saxophone*. I. Allegro Reticular. Presentación de los cortometrajes de los/as alumnos/as del aula de cine.

'Merry Chrismas'. II Andante Granítico, *Y en el camino*.

III Presto compacto, cortometraje *Réquiem*.

Para finalizar se ofrecerá un 'tentempié' y un espacio acompañado por el grupo 'Extras' y la selección de música que nos propondrá D.J.OE.

unicef